



---

---

# SARRIOAK, GOIMENDI- TAKO AKROBATA BIKAINAK

---

---

J.R. Aihartza

**P**iriniotako faunaren artean, eta ugaztunei dagokienean, beren liraintasuna eta izaera iheskorra dela eta, mendizale eta naturalista gehienen interesa bereziki kilikatzen duen espeziea dugu sarrioen. Hainbatetan lasterka ez eta hegan doala dirudien animalia bizi hau, goimenditako ugaztunen irudi bilakatu zaigu.

Sarrioa (*Rupicapra rupicapra*), ugaztun artiodaktiloa dugu, bobidoen familiakoa, eta Euskal Herrian gutxi dagoen arren, Piriniotan hedatzen ari da azken urteotan. Kaprinoen tribuan sailkatutako herbiboro honek, 1,1-1,3 m-ko luzera du, eta gurutzerainoko altuera 70-80 cm-koa izaten da. Isatsa laburra izaten da oso, 4 cm inguruko luzera izaten duelarik. Sendotasunari begira, sarrioeak jaioberritan 2 kg inguruko pisua izan ohi dute, eta heldutasunera iristean, arrak 40 kg pisatzen ditu gutxi gorabehera. Emea berriz lirainagoa da, eta normalean ez da 30 kg-tik gorakoa izaten. Hala ere, balio hauek aldakorrek dira urtean zehar, eta negu gogorrean elurrak elikagaiak eskuratzea galeratzen duenean, animaliok erruz argaltzen dira, eta pisuaren herena ere erraz gal dezakete.

Pirinioetako sarrioa (*R. rupicapra pyrenaica*), Alpeetakoa baino subespezie txikiagoa eta kolorez argiagoa dugu. Bigarren berezitasun hau, nabarmenagoa gertatzen da uda aldean; sarriok urtesaso honetan ilaje labur, arre argi eta gorrixka ageri bait du. Neguan berriz, ilaje luze eta trinkoa garatzen du, kolorea ere (lepo alde eta saihetsetan batipat) nabarmenki iluntzen zaiolarik.

Sarriokumearen adarren garapena berehala hasten da; lehenik, geroxeago atzerantz okertuz adar-gakoak eratu-ko dituzten mutur bi agertzen zaizkio. Sarriok bi urte

---

*Sarrioa, hainbatetan lasterka ez eta hegan doala dirudien animalia bizi hau.*



betetzerako, gako bereizgarria eraturik egongo da, eta une horretatik aurrera, adar-ardatzak soilik luzatuko dira, horretarako urtero garapen-eraztun berriak gehituz. Adarren batezbesteko luzera 17-21 cm-koa izaten da.

Arren eta emeen arteko ezberdintasunak ez dira beste zenbait artiodaktilotan bezain begibistakoak, eta ondorioz, sexuak desberdintzea bereziki zaila gertatzen da mendian. Dimorfismo sexuala adarren forman antzeman daiteke: arraren adarrak zertxobait lodiagoak dira emeenak baino, eta gainera, adar-muturrek eraturiko gakoak hertsia

*Euskal Herrian, Belagua eta Larrako bazterrek dira sarrioak oraindik bizi direneko leku bakarrak.*



JRA



JRA

*Lotarako ere, babesleku garaiak aukeratzeko sarrioak.*

dira. Arraren kasuan gako-muturrak beherantz zuzenduta ageri zaizkigun artean, emearenak atzerantz (isats alderantz), zuzentzen dira. (Ikus 4. eta 5. irudiak).

Esan bezala, sarrioak, Piriniotako mendi garaietan bizi dira, eta bertan, goimenditako larretan nahiz harkaitzetan gora dabiltzala aurki daitezke. Egunez bizi diren animalia hauek, gizakion-gandik ihes egiten ondo ikasia dute, eta lotarako ere babesleku garaiak aukeratzeko dituzte. Dena dela, hotzak eta elurrak bultzatzen dituenean, behera jaisten

dira, eta izeiditan, eta pagadien mugetan ere aurki daitezke orduan. Hala ere, eta hotz handiegia egiten ez badu, badira elurrari aurre eginez goimenditako larretan geratzen diren taldeak ere, eta bertan aztarka aritzen dira, elurrak estalitako landareak azaleratu eta jateko.

Beren liraintasun eta indarrak, goimenditako lurralde arriskutsu eta zailetan trebezia harrigarritz moldatzeko ahalmena eskaintzen die. Horregatik tontor eta haitz-hormetan, eta amildegia edota menditako pasabiderik ezkutuene-

tan maiz entzun ohi da sarrioak ihesean askatzen dituen harriek ateratako zarata. Eta hau izaten da, gehientsuenetan, sarrio dagoela adierazten digun zeinu bakarra.

Animalia iheskorra izanik (eta giza presioa handia deneko lekuetan are iheskorrago, noski), ikusi orduko tximistak bezalaxe alde egiten dute, amildegietan gora eta behera, akrobaziazko ikuskizun bikaina eskainiz. Beren jauziak, beldurgarriak eta zehaztasun handikoak dira. Airean sei bat metroko bidea eginez ere, 30 cm-ko diametroa duen azal batean gera daitezke.

Bizi direneko inguruarekiko egokitza-pen gisara edo, sarrioren atzazaletan mota desberdinetako eraldaketak ikus daitezke. Animaliak zapaltzen dueneko atzazal-ertza adibidez, ondo garatuta ageri da, eta substantzia gomatsu batez



eratuta dago. Gainera, apatxaren erdi biak elkarrekiko higikorrak dira, eta sarriok badu hauek nahierara higitzeko ahalmenik.

Sarrioka lurralde harritsutan bizi denez, oin-aztarnarik ez da sarri ikusten, baldin eta neguan ez bada behintzat. Oin-aztarnak forma bereizgarria dute. Apatx bakoitzaren alde bien markak angelutsuak dira, eta bi erdien artean bitarte zabal nabaria ageri da beti. Oinez doanean, oin-aztarna laukizuzena izan ohi da, ia koadratua, baina animaliaaren abiadura areagotzen den neurrian, eta atzazalen higidura dela eta, trapezio-itxura hartzen du. Atzazal sekundarioak, apatxaren atze aldean eta goian kokatuta daude, eta elur sakonetan, edo eta animaliak ihesari ekiten dionean baino ez dute arrastorik uzten. Elur biguneko oin-aztarnetan ez bezala, animalia ihesi doanean atzazal sekundarioak oso atzean

inprimatzen dira (Atzazal primarioak baino 10 bat cm atzerago). Honen arrazoia zera dugu: jauzi handi baten ostean, animalia lurreratzean, hankek amor ematen dute, hatzazal sekundarioek lurra jotzen dutelarik. Sarriok helduen oin-aztarnak, 6 cm-ko luzera eta 3,5 cm-ko zabalera izaten dute gutxi gorabehera. (Ikus 1., 2. eta 3. irudiak).

Ar nagusien kasuan izan ezik, sarrioka animalia taldekoi ditugu. Sarriok-talde hauek, araldian 100erainokoak ere izan daitezkeen arren, urtean zehar askoz ere txikiagoak izaten dira, eta sarriokume, eme, eta ar gaztez osatzen dira.

Araldia azaroan hasten da. Ordurarte bakarka bizi izandako ar nagusiak, eme-talde desberdinengana biltzen dira, talde bakoitzean ar bat buru bilakatu eta arreta handiz zaintzeaz arduratzen delarik. Beste ar bat sumatuz gero, behin-behineko buruzagia berehala atzetik jarraitzen zaio. Ar arrotzak aurre egiten badio, borroka egingo dute biek. Bi arrak, lepo eta bizkar gaineko ilajea harro-harro dutela, aurrez aurre jarri eta elkarren kontrako talka bizian hasiko dira, burua makur, norgehiagoka. Eraso hauek askotan etsaiaren sabelera zuzendutakoak izaten dira, eta beraz, begibistakoa da adar gakodunak izatearen abantaila. Izan ere bestela zauri larriak egiteko arriskua bait legoke. Talka eta kasketako hauek auzia argitzen ez badute, ar sutuak adarretako gakoak trabatu eta, tira batera eta tira bestera, aurrekoa menderatzen saiatuko dira. Azkenean,


JRA



*Aralditik kanpo, taldeak sarriokume, eme eta ar gaztez osatzen dira.*



1



3



2

Hatzazal  
sekundarioen  
aztarnak



4



5

1. Aurreko hanken aztarna.

2. Atzeko hanken aztarna, elur bigunetan.

3. Aztarna-segida: aurreko hankenak beltzez, eta atzekoenak zuriz.

4-5. Dimorfismo sexuala adarretan ikus daiteke: 4, arra; 5, emea.

noski, bietariko ahulenak etsi egin behar-ko du, ihesari ekinez.

Sarriorearen araldiaren ondoren negua dator, eta urtesasoi hau gogorra eta luzea da oso animalia hauek bizi direneko para-jeetan. Ondorioz, urtesasoi honek hau-tespen zorrotza ezartzen du sarrio-populazioan, hotzaren eta elikagai-eskasiaren ondorioz animalia zahar eta ahulenak hilik geratuko direlarik.

Uda iristerako, emeak berriro ere tal-  
detan bildu eta kume jostalariak inguruan  
jauzika daramatzatela, goimenditako  
larre eta harkaitzetan zehar abiatzen dira,  
neguak eta hotzak ostera handik uxatu  
arloan.

Sarriokak, beraz, etsai natural gutxi du  
oso. Hartza —hain urria izateaz gaine-  
ra— motelegia da honelako animalia  
arina harrapatzeko, azeria berriz ez da  
sarriorearen eraso gogorrari aurre egiteko  
gauza eta arrano beltzak sarriokumeren  
bat harrapa dezake agian, baina harrapa-  
ritza honek ez du eragin nabarmenik  
sarrio-populazioen hazkuntzan. Gizakia  
da beraz, sarrio-populazioen hazkuntza  
eragiten duen harraparirik nagusia.  
Izan ere, datu paleontologiko eta histori-  
koek adierazten dutenez, sarriokak orain  
baino askoz ere ugariagoak izan bide  
ziren antzina.

Nafarroan, Belagua eta Larrako ingu-  
ruetan, 30 bat ale bizi dira egun; baina

JRA



*Ar nagusiak bakartiak izan ohi dira, eta araldian ez bada, ez dira eme-taldeekin batera ibiltzen.*

antza denez, duela mende batzuk Orhi  
mendiaren magaletan zehar, Iratin, Abo-  
din, eta Orreagan bertan ere ugari zirate-  
keen.

Ondorioz, sarriokak egun Piriniotako  
eskualderik garaienetan bizitzearen arra-  
zoiak giza presioan bilatu behariko ditu-  
gu, eta beraz, bere habitat naturala men-  
ditarra izanik ere, jatorrizkoak baino  
eskualde garaia gotara uxatuak izan dire-  
la esan daiteke. Pirinio zentralako parke

eta erreserbetan sarrio-populazioen haz-  
kuntza tasak aztertuz, populazio hauen  
errekuperazio-ahalmena handia dela  
ikus daiteke. Horregatik, Piriniotako  
Parke Nazional delakoan, 1968 eta  
1970.aren bitartean izandako ugaltze-  
tasak, urteko %13-14 ingurukoak dira.  
Ez da harritzekoa beraz, Piriniotan  
nabari den sarrio-hedakuntza, eta honek  
baikor bihurtzen gaitu animalia honen  
etorkizunari begira. ●



JRA

*Beren liraintasun eta indarrak, goimenditako bazter arriskutsu eta zailenetan trebezia handiz moldatzeko ahalmena eskaintzen die.*